

ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGAER

Gaixotasun erreumatikoez erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

KEMEN

Pertsona ezinduen kirol kluba

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasan, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrocefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

AVAH

Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel. eta Faxe: 945 225 516
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxe: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoar@fekoar.com
www.fekoar.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770
Faxe: 943 316 379
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

EDITA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN
PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprimitzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua



OROKORRA

“Emakumea eta desgaitasuna” gidaliburua argitaratu dugu

4

- 5** • Txertaketa prozesua eta desgaitasuna duten pertsonak.
- Eusko jaurlaritzaren eta desgaitasuna duten pertsonen lan poltsa publikoak.
- 6** • Agerraldiak eusko legebiltzarrean.
- 7** • Zaintza eredu berri bat aldarrikatzen dugu.
- 8** • Desgaitasuna duten adingabeak koordainketa farmazeutikotik salbuestea.
- 9** • Laguntza pertsonala gehiago bultzatzea proposatu diogu lanbideri.
- 10** • Onartu egin da desgaitasuna duten pertsonen ezgaitetaren ordez laguntza sistema bat ezartzen duen legea.
- 11** • Konstituziotik ‘elbarri’ terminoa kendu da: aldaketa estetikoa baino ez al da?
- 12** • Katalogo ortoprotesikoa egokitzea.

ARABA

- 13** • HANUP.
Haur eta nerabeentzako udal plana.
- Irisgarritasuna hobetzea.
- 14** • Irisgarritasun arazoak dituzten puntu beltzak.
- 15** • Santa katalina lorategia.
- Tailerra: divertad sexual.
- 16** • Emakumea ehuneko ehunean, erantsitako aurreiritzirik gabea.
- Audio.
- 17** • Osasun publikoa aurrera!

BIZKAIA

- 18** • Bizinde, bizi-independentziazatik gertuagol.
- 19** • Irisgarritasun-arazoak desgaitasun baloratzeko zentroan.
- Irisgarritasunik ez NANA egiteko Getxoko bulegoan.
- 20** • Bizkaiko 20 proposamen turistiko irisgarriren gidaliburua.
- 21** • Laguntza pertsonala Aldundiaren 2021-2023 Planean.

GIPUZKOA

- 22** • Irisgarritasuna Donostiako Udalean.
- 23** • Etxebizitzetako irisgarritasunari buruzko parte-hartze prozesua.
- Lan-poltsak eta desgaitasuna duten pertsonak.
- 24** • Eskultura inauguratu dute Santa Klara uhartean.
- 25** • Pertsona guztientzako museoak sustatzeko gidaliburua.
- Gizarte Politiken Espainiako Sarearen Biltzarrean parte hartzea.
- 26** • Laguntza-produktuak erosteko laguntzak.

“EMAKUMEA ETA DESGAITASUNA” GIDALIBURUA ARGITARATU DUGU

Martxoaren 8a (Emakumearen Nazioarteko Eguna) dela eta, Elkartean elkarteak “Emakumea eta Desgaitasuna: desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatoen eskubide berdinak eta diskriminaziorik ezaren alde” gidaliburua argitaratu du.

Arau-esparruak (Konbentzioaren 6. artikulua) botere publikoak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak benetan gauzatzeko direla bermatzera behartu arren, hori ez da beti betetzen. Desgaitasun fisikoa duten emakumeen kasuan, berriz, ingurune-ko hainbat zapalkuntza-faktorek eragozten dute hori.

Faktore horiek patriarkatuaren kulturarekin eta desgaitasuna bakarrik hautematearekin dute zerikusia, eta diskriminazio-mota asko jasaten dituzte, hala nola ikusezin bihurtzea, eskubideak ukatzea, autoestimu baxua izatea edo ahalduntzea mugatzea. Faktore horiek, gainera, areagotu egiten dute desberdinkeria, diskriminazioa zaugarritasuna, bazterketa eta isolamendua jasateko arriskua.

Egoera horren aurrean, Elkarteaneko kideok aldarrikatu nahi dugu desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatok guztiek beren eskubide guztiez erabat eta baldintza berberetan gozatu ahal izatea, diskriminazio mota guztiak ezabatuz. Gidaliburu honen bidez, urrats bat gehiago eman nahi dugu aldarrikapen horretan, eta, gainera, dokumentu erabilgarri bat argitaratu nahi izan dugu, berdintasunerako eta eskubideak bermatzeko proposamenak jasotzen dituena.

Ikusi gidaliburuaren aurkezpen-bideoa:

<https://youtu.be/1Luyr4zc4IM>

Ikusi gidaliburuaren edukia:

<https://elkartean.org/pdf/berdintasun-gida-emakumea-eta-desgaitasuna.pdf>

Egoera horren aurrean, Elkarteaneko kideok aldarrikatu nahi dugu **desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatok guztiek beren eskubide guztiez erabat eta baldintza berberetan gozatu ahal izatea, diskriminazio mota guztiak ezabatuz**




Txertaketa prozesua eta desgaitasuna duten pertsonak

Elkarteanek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatu dio kontuan har dezala patologia erantsiak dituzten pertsona desgaituen eta haien zaintzaileen lehentasuna txertaketa-prozesuan.

Egia da desgaitasuna izateak ez dakarrela gaixotasuna kutsatzeko joera handiagorik, ezta gaixotasun horren sintomatologiarekiko zaugarritasun handiagorik ere. Hala ere, ordezkaten dugun kolektiboaren barruan, desgaitasuna duten pertsona batzuek patologia erantsiak dituzte, eta ez ziren kontuan hartu lehenesteko irizpideen artean. Era berean, aldarrikatu dugu txertoa lehentasunezkoa dela zaintzaileentzat (senideentzat eta/edo profesionalentzat); izan ere, ezinbesteko zaintzaile horien laguntza behar dute, eta ondorioak larriak izan daitezke gaixotzen badira edo artatzen jarraitu ezin badute.

Azkenik, desgaitasun fisikoa duten Euskadiko pertsona guztiei informazio argiagoa emateko eskatu dugu txertaketa-hurrenkerari buruz, hartutako lehentasun-irizpideei buruz eta txertaketa-estrategiaren garapenari buruzko aurreikuspenari buruz, gure kolektiboak gai horren inguruan helarazi dizkigun galdera, zalantza eta kezka ugariei erantzun ahal izateko.



Eusko Jaurlaritzaren eta desgaitasuna duten pertsonen lan poltsa publikoak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen agindu berriak (Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Agindua) enplegu publikoko poltsak kudeatzeko eredu berri bat jasotzen du, hautagaien ahalduntzea hobetuz, bai eta komunikazio- eta hautaketa-prozesuak ere.

Bereziki azpimarragarriak iruditzen zaizkigu, desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, eredu berri honek jasotzen dituen ekintza positiboko neurriak. Zehazki, ezartzen du 12 hilabeteko edo hortik gorako iraupena duten 14 lan-eskaintzetatik 1 (% 7) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten dagokion lan-poltsako langileei eskainiko zaiela. Gainera, eskaintza ezin zaienean desgaitasuna duten langileei esleitu, hurrengo eskaintza ere desgaitasuna duten langileei egingo zaie.

Elkarteanek lanean jarraituko du foru-aldundien eta udalen lan-poltsa publikoen kudeaketan antzeko neurriak aplikatu daitezkeen, lan-poltsak desgaitasuna duten pertsonen artean enplegu arrunta bermatzeko tresna garrantzitsuak baitira.

AGERRALDIAK

EUSKO LEGEBILTZARREAN

Urteko lehen hiruhilekoan, Elkarteanek hainbat agerraldi egin ditu Legebiltzarrean, desgaitasun fisikoa duten Euskadiko pertsonen eskubideak defendatzeko:



1 Covid-19ak desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizitzan dituen ondorioen berri eman dugu, beharrak ikusaraziz eta gure eskubideak eta bizimodu independentea bermatzeko proposamenak proposatuz.

Krisialdi honek are gehiago nabarmendu du asistentzialismoan eta instituzionalizazioan oinarritutako zaintza-eredua ez dela batere jasangarria Bizimodu Independentearen Ereduekin alderatuta. Gainera, beharrezkoa dela erakutsi du aukera-berdintasuna eta bizimodu independentea bermatzeko funtsezkoak diren eremuak eraldatzea: arreta-eredua, irisgarritasun unibertsala, hezkuntza inklusiboa, enplegu arrunta, baliabide nahikoak eta laguntza pertsonal bermatua.

2 Gazteriaren Lege berriari egin dizkion ekarpenak azaldu ditugu, eta agerian utzi dugu desgaitasunen bat duten gazteek gainerako gazteen zailtasun berberei aurre egin behar dietela (langabezia, enplegu prekarioa, ordainsari txikia, etxebizitza lortzeko zailtasuna, emantzipatzeko diru-sarrera urriak, etab.), eta oztopo gehigarriak gainditu behar dituztela, desberdinkeria-inguruak sor-tzen dituzten testuinguru askotan eragozpen, muga eta bazterketa erantsiak jasan behar izaten baitituzte.

Halaber, defendatu dugu lege honek

aukera ematen duela gazteek inklusioaren aldeko gizarte-eraldaketan duten zeregina sustatzeko, ziur baikaude gazteak belaunaldi berri bat direla, eta modu aktiboan parte hartu behar dutela justizia sozialaren eta aukera-berdintasunaren aldeko borrokan.

3 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege berria hobetzeko gure jarrera azaldu dugu; hausnartu nahi izan dugu, testuinguruak eta berdintasun-gabeziak eragiten dizkien oztopo ugarien eta desberdinkeria-fatoreen ondorioz, desgaitasuna duten emakumeek eta neskatok zergatik duten indarke-riarekiko zaugarritasun-egoera jasateko arrisku handiagoa.

Gure ekarpenak azaldu ditugu haien errealitatea ikusarazteko, haien ahalduntzea hobetzeko, eskubide osoko herritartzat hartzeko, bizimodu independentea berregiteko eskubidea eta arreta-baliabideetarako sarbidea izan ditzaten.



ZAINZA EREDU BERRI BAT ALDARRIKATZEN DUGU

Elkarteanek EH Bilduk antolatutako “Feminismotik, bizitzak erdigunean” jardunaldietan parte hartu du, “Zaintzak eta desgaitasuna. Alderdi bikoitza” hitzaldiarekin.

Salatu dugu politika publikoek ziurtzat jotzen dutela familiek eta, bereziki, emakumeek beren gain hartu behar dutela mendetasuna duten pertsonen ongizatea eskaintzea, eta horrek bakartzeko eta gizarte-eta lan-bazterketarako arrisku handiagoa dakarkie, osasun fisikoan eta emozionalean dituen ondorio negatiboak kontuan hartu gabe. Horregatik defendatu dugu zaintza eskubidetzat hartu beharko litzatekeela, zaintza-eredu berri batetik

abiatuta, zeregin hori estatuaren, merkatuaren, gizartearen eta etxe barruko gizonen eta emakumeen arteko erantzukizun partekatutzat hartzeko.

Bestalde, egungo ereduak zaintza-hartzaile gisa ikusten ditu desgaitasuna duten emakumeak eta gizonak, nahiz eta zaintzaile-lanetan ere jarduten duten familia-nukleoan, baina erabakitzeke gaitasunik gabe, eta inolako aintzatespenik eta laguntzarik gabe. Ildo horretan, gogora ekarri dugu arau-esparruko ekimen berriek (*Familia-ingurunean zaintzeko eta zaintzailei laguntzeko Gipuzkoako prestazio ekonomikoari buruzko foru-dekretua, edo, hasierako idazketan, familia-harrerari*

buruzko EAEko dekretu-proiektua) diskriminatu egiten dituztela desgaitasuna duten pertsonak, ukatu egiten dietelako zaintzaile izateko edo familia-harrerarako aukera, ez direla gai argudiatuta. Baina ez dute gaitasun hori egiaztatzen udaleko gizarte-zerbitzuen egokitasun-txostenaren bidez.

Horregatik guztiagatik, alderdi bikoitzetik heldu nahi diogu gai honi: alde batetik, genero-ikuspegia txertatu behar da desgaitasun-politiketan eta desgaitasuna genero-politiketan; eta bestetik, zaintza-eredua aldatu behar da, bizimodu independentearen paradigma kontuan hartuta eta, nahi izanez gero, zaintzaile-lanetan jarduteko eskubidea errespetatuz.

Era berean, beharrezkoa da desgaitasuna duten pertsonen aukera askerako eskubidea bermatzea laguntzen esparruan, haien oinarritzko premiak ziurtatzeko, bai eta komunitatean parte hartzeko ere, laguntza pertsonalizatuekin, malguekin eta haien beharrian partikularretara egokitutako laguntzekin.



DESGAITASUNA DUTEN ADINGABEAK KOORDAINKETA FARMAZEUTIKOTIK SALBUESTEA



2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarri zuen farmazia-prestazioan egindako ekarpenetatik (koordinaketa) salbuetsi behar zirela 18 urtetik beherako erabiltzaileak, baldin eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta badute.

Hasiera batean automatikoki aplikatzeko neurria bada ere, kontuan hartu behar da desgaitasuna duten adingabe asko gurasoen farmazia-prestazioaren onuradun gisa agertzen direla, eta, beraz, sistemak ez dituela beti zuzenean koordinaketatik salbuesten.



Informazio gehiago eta izapideak:

www.seg-social.es

Nola eskatu koordinaketa farmazeutikotik salbuestea?

- Desgaitasuna duen seme-alaba adingabe batengatik Gizarte Segurantzaren familia-prestazio bat jasotzen badugu, ez da beharrezkoa inolako izapiderik egitea, osasun-laguntzako datu-baseko eta farmazietako aplikazio informatikoak egokitzen ari direlako adingabeak koordinaketa farmazeutikotik salbuetsita erregistratuta gera daitezten.
- Prestazio hori kobratu ezean, farmazia-salbuespena eska daiteke, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean idazki bat aurkeztuta.
- Zalantza bat izanez gero (prestazioaren jasotzailea izan ala ez), eskaera-inprimaki bat sortu da izapiderako.
- Egoera hori erregularizatu arte, urtarrilaren 1etik aurrera ordaindutako zenbateko guztiak itzultzeko eska daiteke. Dirua itzultzeko, farmaziako tiket guztiak gorde behar dira.

LAGUNTZA PERTSONALA

GEHIAGO BULTZATZEA

PROPOSATU DIOGU LANBIDERI

Desgaitasuna duen pertsona batek, besteak beste, laguntzaile pertsonal bat kontratatu behar badu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura jo dezake lan-eskaintza egiteko. Gaur egun, eskaera hau “ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA” (kodea: 57101013) kategoriako eskariaren bidez bideratzen da –“Etxeko zainketa pertsonaletako langileak” atalaren barruan (5710)--.


Elkarreanek uste du kategoria horren deskribapena **ez datorrela bat laguntza pertsonalaren profilarekin eta funtzioekin**, Konbentzioaren 19. artikulua ezartzen duena kontuan hartuta:

- Ez da etxean laguntzeko jardueretarako bakarrik, baizik eta desgaitasuna duten pertsonen komunitate-ingurunean parte hartzeko eta, bereziki, hezkuntza edo laneko esparruetara sarbidea izateko edozein jardueretarako laguntza ere bada.
- Ez da eguneroko bizitzako oinarrizko jardura instrumentalak errazteko bakarrik, bizimodu independenterako eta komunitatean parte hartzeko eskubidea garatzeko beharrezkoa den beste edozein jardura egiteko laguntza ere bada. Laguntzaile batek alde aurretik kontratatzailearekin hitzartutako edozein eginkizun bete dezake, hark dituen desberdintasun funtzionalen arabera. Beraz, pertsonak bizimodu independentea garatzeko eta komunitatean aktiboki parte hartzeko behar duen edozein eremutarako laguntza da.



Horregatik proposatu diogu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari **laguntza pertsonala bultzatzea**, bi lan-ildoren bidez:

- Alde batetik, “Etxez etxeko laguntzaileak” egungo kategoriaren funtzioak gehitzeko edo “Bizimodu independenterako laguntzaile pertsonala” kategoria espezifiko berri bat sortzeko, Konbentzioaren arabera laguntza pertsonalari dagozkion funtzioak barne har ditzan.
- Bestalde, laguntzaile pertsonalen prestakuntza eta gaitasunak hobetzeko, Konbentzioan aitortutako bizimodu independentearen ereduaren arabera.



Onartu egin da desgaitasuna duten pertsonen ezgaitetaren ordezkagintza sistema bat ezartzen duen legea

Konbentzioaren 12. artikulua arabera, desgaitasuna duten pertsona guztiak gaitasun juridikoa dute, eta, beraz, ezin zaie gaitasun hori kendu, baizik eta laguntza eman behar zaie gaitasun juridikoa gauzatzeko (behar izan dezaketen kasuetan: adibidez, muga kognitiboak edo autogobernarako beste zailtasun batzuk dituztenean).

Gaur egungo ezgaitetaren sistema eta lehentasunez tutoretzan oinarritutako babes-sistema (gaitasun juridikoa deuseztatzen du eta tutoreak ordezkatu du pertsona bere bizitzako eremu guztietan) aldatzeko hainbat urtez lan egin ondoren, azkenean, Diputatuen Kongresuak Konbentzioarekin bat datorren esparru juridiko berri bat onartu du. **Ekainaren 2ko 8/2021 Legeak, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzeko laguntza legeria zibila eta prozesala aldatzen duenak**, desgaitasuna duten pertsonen ezgaitetaren judizialaren ordezkagintza sistema bat ezartzen du, erabakiak modu aske eta informatuan har ditzaten.

Besteak beste, lege honek tutoretzaren figura ezabatzen du, eta kuradore eta defentsa judiziala indartzen ditu, gaitasuna gauzatzeko lagun dezaten. Zehazki, honako hauek bereizten ditu:

- Ordezkaritza-kuradore, erabaki pertsonalak eta ondarezkoak hartu ezin dituztelako laguntza-premiak dituzten pertsonentzat; baina beren eskubideen titular izaten jarraitzen dute.
- Laguntza-kuradore, gizarte-bizitzaren esparru guztietan edo batzuetan moldatzen laguntzeko.



Lege honen urratsik garrantzitsuena da Konbentzioaren eskubideen paradigma araudira eramatea:

desgaitasuna duten pertsona guztiak, izan ditzaketan muga funtzionalak alde batera utzita, eskubide eta betebeharren titular izateko eta eskubide eta betebehar horiek baliatzeko gaitasun osoa dute, eta, nolana ere, eskubide eta betebehar horiek gauzatzeko beharrezkoak diren laguntzak bermatu behar dira.

KONSTITUZIOTIK “ELBARRI” TERMINOA KENDU DA: ALDAKETA ESTETIKOA BAINO EZ AL DA ?


Ministro Kontseiluak Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua erreformatzeko aurreproiektua onartu du, ‘elbarri’ terminoa ezabatzeko; izan ere, Konbentzioa eta desgaitasunaren kontzeptuari buruzko beste paradigma aurreratu batzuk indarrean egon arren, oraindik ere hor jarraitzen zuen. Komunikabideek terminologia aldaketa hori azpimarratu badute ere, onartutako testu berriak beste elementu garrantzitsu batzuk ere jasotzen dituela azpimarratu nahi dugu Elkarteonetik:

Ezartzen du desgaitasuna duten pertsonak titulu honetan aurreikusitako **eskubide eta betebeharren titularrak direla**, askatasun eta berdintasun erreal eta eraginkorreko baldintzetan, eta ezin dela bereizkeriarik egin.

Desgaitasuna duten **pertsonen babes berezia** arautuko da, eskubide eta betebehar guztiak gauza ditzaten.

Desgaitasuna duten pertsonen erabateko autonomia pertsonala eta gizarteratzea bermatzeko beharrezkoak diren politikak egitera behartzen ditu botere publikoak. Politika horiek aukeratzeko askatasuna eta lehentasunak errespetatuko dituzte, eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeen parte-hartzearekin onartuko dira, legeetan ezarritako baldintzetan. Bereziki zainduko dira desgaitasuna duten emakumeen eta neskatoen behar espezifikoak.

Desgaitasuna duten pertsonak Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuetan aurreikusitako **babesa dute**, beren eskubideak zaintzen baitituzte.



Konstituzioan jasotako ikuspegi berria positiboa bada ere, uste dugu terminologiaren aldaketekin batera benetako aldaketak egin behar direla inklusioaren eta diskriminaziorik ezaren kulturean, bai eta politika publikoetan ere, besteak beste, arlo hauetan: hezkuntza, enplegua, berdintasuna, gizarte-babesa, irisgarritasuna, diskriminaziorik eza, osasuna, bizimodu independentea, komunitatean parte hartzea eta abar.

Katalogo

ORTOPROTESIKOA

egokitzea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak katalogo ortoprotesikoa urtarrilaren 22ko SCB/45/2019 Agindura egokitu du. Agindu horrek gurpil-aulkien, ortesien eta ortoprotesi berezien katalogo komuna eguneratzen du, eta, beste berritasun batzuen artean, gehienezko finantzaketa-zenbateko batzuk aldatzen ditu, edo produktu mota berriak gehitzen ditu (gurpil-aulkiak, txasisak, ferulak, kortseak, taka-takak, eskaren aurkako kuxinak).

Euskadiko katalogo ortoprotesiko berri hau Osasun Sailaren webgunean kontsulta daiteke:

www.euskadi.eus

Horren barruan, honako hauek jasotzen dira:


- Katalogoko produktuak.
- Finantzatutako gehieneko zenbatekoa, hau da, produktu mota bakoitzerako finkatutako gehieneko zenbatekoa (izan dezaketen gehieneko kostua).
- Kostua ordaintzeko lor daitekeen laguntza publikoaren gehieneko zenbatekoa.
- Produktu horietako bakoitza berritzeko gehieneko denbora.

Katalogo berriak produktu gehiago ditu, eskaintza anitzagoa du eta gurpil-aulkia eta haren osagarriak erosteko laguntza gehiago dauzka. Produktu berriak ere sartu dira, hala nola audifonoak (baina 26 urtera arte bakarrik).

Zenbait alderdi positibo kontuan hartu arren, uste dugu katalogoaren erregulazioa oraindik ere ez dela nahikoa desgaitasuna duten pertsona guztiek beren beharrian partikularretara egokitutako laguntza-produktuak izango dituztela bermatzeko, administrazio-izapidetze arinak eta desgaitasunaren gainkostuari laguntzen dioten koordainketa handiak saihesteko beharrezko laguntzak barne hartuta.

Elkartean adi egongo da, eta kontuan hartuko ditu katalogo berri honen inguruan gure kolektiboak izan ditzakeen kezkak, kasuren batean atzera egiten bada, produkturen bat eskuratzeko mugak badaude edo finantzaketa publikoa murrizten bada aurreko katalogoarekin alderatuta.





HANUP HAUR ETA NERABEENTZAKO UDAL PLANA

eginaren eginez Gasteizko Udaleko Haurren Zerbitzuarekin lankidetzan aritu da, udalerriko haurren eta nerabeen egoerari buruzko azterlanean, Haur eta Nerabeentzako III. Udal Plana (HANUP) egiteko oinarria izan dadin.

Azterlana egiten ari den SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak antolatutako lantaldean parte hartu genuen – desgaitasunak dituzten pertsonen beste kolektibo batzuekin batera–. Talde horretan, haurtzaro eta nerabezaroan bizi ohi diren egoerak azaldu genituen, eta desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-laguntzak eskatu genituen desgaitasuna duten ikasleentzako ekimen guztietan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere: berdintasunean bizi ahal izateko eremuak edukitzeko beharra, jolastokia inklusiboa izateko beharra, sexu-hezkuntza inklusiboa izatea bermatzeko beharra, diskriminazio-egoerak saihestea eta irudi positiboa ematen laguntzea (pertsona ikusten ikasi, desgaitasuna ikusi beharrean); horretarako, gizarte-eraldaketa behar da, eta hezkuntza-munduak garrantzi handia du horretan.

IRISGARRITASUNA HOBETZEA

Gasteizko Jabetza Erregistroen eta Arabako Merkataritza Erregistroaren bulegoek (Gaztelako Atea kalea 5 eta 7), azkenik, irisgarritasuna hobetu dute, kanpoaldeko sarreran, *eginaren eginez*ek formalki eskatuta.

Bestalde, lehoi-buru batzuekin errematatutako Posta kaleko postontziak bulegoaren fatxadan jarri ziren berriro, fatxada guztiz birgaitu ondoren, baina garaiegi eta ezin erabiltzeko moduan. Azkenean, elementu apaingarriak izango dira, ezin baitituzte herritar guztiek erabili.



| Araba |

IRISGARRITASUN ARAZOAK DITUZTEN PUNTU BELTZAK

eginaren eginezek baliabide digital baten bidez, irisgarritasun-arazoak dituzten puntu beltzak aurkitu ditu hirian. Hau da, irisgarritasunik ez duten udalerriko leku edo zerbitzuak, arazo eta gizarte-bazterketa handiagoak eta parte hartzeko arazoak eragiten dizkietenak desgaitasuna/mugikortasun urria duten pertsonen.

Jasogailu zaharkituak, sarrera-ate astunak edo maila erabilgaitzak. Mugikortasun urria dugun pertsonok Gasteizko kaleetan, dendetan eta zerbitzuetan oraindik ere oztopoak aurkitzen ditugu, nahiz eta 1997an onartutako irisgarritasun-legearen arabera, ondasun eta zerbitzu guztiak, pribatuak zein publikoak, irisgarriak izan behar diren. Baina legea ez betetzeak eta ikuskapen faltak gabezia handiak eragiten dituzte. Irisgarritasun-arazoak dituzten Gasteizko 'puntu beltzetako' batzuk bisitatu ditugu, hala nola Arabako Natura Zientzien Museoa, Otsanda andrearen dorrea, Vital Kutxaren aretoa, Posta kalea, NANA egiteko bulegoa, Olagibel kalea, Alde Zaharreko Aurora babespeko apartamentuak.

Irisgarritasun-arazoak udal-zentro zibikoetan ere badaude, berriki **eginaren eginezek** salatu duenez (www.eginez.org webgunean irakur dezakezu albistea). Ateak, bikoitzak sarritan, astunak eta eskuz irekitzekoak izaten dira, beraz, zaila izaten da mugikortasun urriko pertsona bere kabuz sartzea.

Bide publikoan ere zailtasunak izaten dituzte, adibidez, obretan ordezko pasabideak sortzen direnean. Edo birziklatzeko edukiontzia, Alde Zaharrekoak adibidez, arrapalan baldin badaude, pasabidea estua bada eta bertara heltzeko aukera bakarra eskailerak badira. Edo beira birziklatzeko edukiontzia, kolektiboko pertsonen ezin baitituzte erabili, zuloa goregi dagoelako. Eta ezinezkoa izaten da mugikortasun urriko pertsona batek papera edo plastikoa birziklatzeko edukiontzietan poltsak



uztea beteta daudenean.

Garraio publikoa ere oztopo handienetako bat da gure eguneroko bizitzan. Autobuse-tako arrapalek bidaiatzea eragozten digute behin baino gehiagotan. Eta taxiei dagokienez, suposatzen da taxien % 5 egokituak izan behar direla. Erabilgarri daudenen guztizkoa kontuan hartuta, bete egiten da; baina orduaren arabera, ez da egoten taxi egokiturik. Araudiak dio gauetan guardiako taxi egokitu bat egon behar dela, baina ez da horrela izaten. ALATAX Arabako Taxi Elkarteari egin diogu aldarrikapen hori.

Erakundeek ez dute beren gain hartzen irisgarritasun-araudia errespetatzeko eta errespetarazteko betebeharra, eta, beraz, Nazio Batuen 2005eko Konbentzioak islatzen duen bezala, desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak urratzen dituzte dituzte eta urratzea onartzen dute. Horren adibiderik berrienak Aiztogile kalearen serreran ditugu, sortu berri den gunek harmailak eta lehen baino aldapa handiagoa baititu. **eginaren eginezek** eta Gasteiz Txiki auzo-elkarteak salatu egin dute Udaleko herritarren txanda batean.

Administrazioa alde batera utzita, titular-tasun pribatuko establezimenduetan, hala nola saltokietan eta ostalaritzako lokaletan, diskriminazio ugari gertatzen dira, irisgarritasun-falta dela eta. Kontua ez da administrazioek ez dutela irisgarritasun unibertsal sustatzen eta ez dutela herritar GUZTIENTZAKO diseinua oinarritzat harturik esku-hartzen, baizik eta, gainera, ez dute egungo irisgarritasun-araudia errespetatzen edo bermatzen. Irisgarritasunari buruzko legea da gehien betetzen ez den legea eta permisibitate handiena duena.



SANTA KATALINA LORATEGIA

Trespondeko Santa Katalina Lorategiak (Iruña Oka) atek ireki ditu berriro pandemiaren ostean, eta bisita eta tailerren programa eskaintzen ditu.

Aurten, berrikuntza gisa, bisita inklusiboak aurkeztu dituzte, mugikortasun urria duten pertsonak espazio horretaz goza dezaten. 'Joelette' aulkiak dauzkate, norabide-barrak ikusmen murriztua dutenentzat eta zeinu-mintzairaren interpretazioa entzumen-desgaitasuna dutenentzako. Horrelako bisitak astebete lehenago erreserbatu beharko dira, gure eskaerei erantzuteko baliabideak eduki ahal izateko. Egoera horrek erakusten digu oraindik asko dagoela egiteko gure parte-hartzea erabat normalizatu arte.

Ordutegia:

astelehenetik ostiralera, 11:00etatik
15:00etara.

Larunbat, igande eta jaiegunetan,
10:00etatik 20:00etara.

Helbidea:

Langraiz Okatik 5 km-ra eta Gasteiztik 12
km-ra.

Telefonia: 688 897 048.

Webgunea:

<https://jardinbotanicosantacatalina.com>

TAILERRA: DIVERTAD SEXUAL

Maiatzaren 17, 18, 24 eta 25ean DIVERTAD SEXUAL izeneko tailerra egin genuen, desgaitasun fisikoa duten emakumeentzat, eta *eginaren eginezko* emakume bazkideek eta Autonomia Pertsonaleko Zentrora joaten diren emakumeek parte hartu zuten.

Tailerra COCEMFE Desgaitasun Fisikoa eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioko berdintasun-teknikari batek dinamizatu du, -saio batean, gainera, sexologiako profesional baten, *eginaren eginezko* kide desgaituaren, laguntza izan zuen-, eta SORGINENEA Emakumeen Etxean (Etxanobe jauregia) egin zen. Lau saioaren bidez, desgaitasuna duten emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatu da, autodeterminaziorako eta gizarte-aldaketarako prozesu indibidual eta kolektibo gisa. Metodologia dinamiko eta parte-hartzailearen bidez, kohesio sozialeko eta garapen pertsonal eta sozialerako elkarrekiko laguntzako testuingurua sustatu da, autonomiara eta norberaren bizitzaren kontrolera bideratua. Aurten, tailerrak alderdi sexuala izan du ardatz, sexualitate askatasunez erabiltzeko eta norberaren gorputzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea abiapuntu duen ikuspegi zabal batean oinarrituta.



EMAKUMEA EHUNeko EHUNEAN, ERANTSITAKO AURREIRITZIRIK GABEA

Dagoeneko elkarteko webgunean kontsulta dezakezu “Emakumea % 100ean, erantsitako aurreiritzirik gabea” kanpaina. <http://eginez.org/ehunekoehuneanemakumea/>, aniztasuna onartzearen eta errespetatzearen aldeko eta genero-diskriminazioaren eta -estereotipoen kontrako kanpaina. Kanpaina euskaraz eta gaztelaniaz diseinatu da eta bi bideren bidez argitaratu da: kanpo-grafikoa (kartelak) eta internet (sare sozialak eta webgunea).

Kanpainaren lehen zatia intrigazko ekintza bat izan zen, hiriko hainbat lekutan kartelak jarri eta sare sozialetan argitaratuz: “% 100 Erantsitako aurreiritzirik gabea” eta berdintasunaren aldeko borrokan hain ezaguna den sinbolo feminista.

Bigarren zatian, kanpainako kartelak jarri eta argitaratu genituen, aurreko faseko intrigaren berri emateko. Lau emakume, horietako bakoitza protagonista desberdin bat (adina, lan-egoera, egoera zibila...), baina guztiak mezu bera erakusten dute:

EMAKUMEA DIRA

Bidi kode batek

<http://eginez.org/ehunekoehuneanemakumea/webgunea> erakusten zuen, kanpainaren berri eman eta Instagramen argazkiak argitaratzen parte hartzera gonbidatzeko.

Kanpaina bizirik eta irekita dago. Bisitatu eta webgunean parte har dezakezu!



LAUDIO

Eginaren eginezek alegazioak aurkeztu zituen bizitegi-eraikinetan igogailuak jartzeko Laudioko Ordenantza aldatzeko jendaurreko informazioaren izapidean, erantzun gisa, Udalak hasierako onarpena eman dio Ordenantza aldatzeko proposatutako idazketa berri bati. Idazketa horrek argi uzten du irisgarritasuna eta erabilgarritasuna ez direla gauza bera, hau da, lehenengo “irisgarritasuna” hartu behar da kontuan, eta irisgarritasunik ezean, “erabilgarritasuna”.

Hala ere, *eginaren eginezek* berriro ere alegazioak egin ditu idazketa berriaren aurka, gai tekniko batzuk argitzeko.



OSASUN PUBLIKOA AURRERA!

OSASUN PUBLIKOA AURRERA izeneko plataforma bat eratu da Araban, sare soziosanitario publikoa, kalitatezkoa eta unibertsala aldarrikatzeko.

Pandemiaren aurretik ere osasun zerbitzuak aurreko krisialdiak eragindako arazoak zituela salatu dute, eta konpondu ez zirenez, COVIDarekin larriagotu egin direla. Hori dela eta, manifestazio bat antolatu zen maiatzaren 22an, eta bertan hartu zuen parte **eginaren egínezek**, erakunde publikoei eskatzeko alda dezatela Arabako herritarren osasuna eta ongizatea zaintzeko baliabideen kudeaketa.

Zerbitzu publikoetako langile eta erabiltzaileek osatzen dute *Osasun Publikoa Aurrera*, eta Arabako 40 elkarte inguru atxiki zaizkio, horien artean, **eginaren egínezek**. Pandemiak agerian utzi ditu zerbitzu sanitario eta soziosanitario publikoen egiturazko arazoak. Lehen mailako arretako zerbitzuak ahuldu egin dira, eta horren ondorioz, erantzunak ez dira azkarrak eta eraginkorrak. Osasuna zaintzeko baliabideen kudeaketa aldatu egin behar da, epe laburreko politikak, pribatizazioak eta inbertsio falta geldiarazteko, eta ehuneko ehun publikoa eta kalitatezkoa den osasuna eskatzen da.

eginaren egínezek bat egin du plataformaren aldarrikapenekin, eta honako hau ere eskatu du:

Desgaitasuna duten pertsonak Osasun Sistemara irisgarritasun unibertsaleko eta aukeraberdintasuneko baldintzetan sar daitezen bermatzen **aurrera** egitea, gure probintziako ospitaleetan, zentroetan, osasun-gailuetan eta osasun-eremuetan desgaitasuna duten pertsonentzat identifikatutako gabezia eta zailtasunei helduz. Bereziki, desgaitasuna duten emakumeen eta neskatuen arreta kontuan hartuta.

Koordinazio egokia **ziurtatu** behar da, “espazio soziosanitarioa” eraginkortasunez garatze aldera eta kronikotasun-egoerei arreta eman behar zaie, besteak beste errehabilitazio-zerbitzuetan erantzun zehatzak emanaz, ospitaleko alden ondoren baliabide egokiak jarriz eta Katalogo Ortoprotesikoko prestazioen eskaintza hobetuz.



| Bizkaia |

BIZINDE, BIZI-INDEPENDENTZIATIK GERTUAGO

Fekoorrek Bizinde Bizimodu Independenterako Zentroa jarri du martxan maiatzean, aniztasun funtzionala duten pertsonen laguntza teknikoarekin kudeatutako espazioa, nahi duenari bizimodu independenterako trantsizioa egiten laguntzeko.

Bizimodu independenterako zentroak bost helburu ditu:



1 Bizimodu independenterako eskubideari buruzko **informazioa, aholkularitza eta laguntza** ematea, eta elkarlaneko **aholkularitza-sare** bat sortzea.

2 Irisgarritasun unibertsalaren eta ingurunearen ezagutzaren ikuspegi orokorra duten **proiektu, zerbitzu, laguntza eta kontzeptuak berritzea eta berriak sortzea.**

3 **Ikaskuntza-plataforma** bat bihurtzea, profesional eta unibertsitateei bizimodu independenterako prestakuntza eskaintzeko.

4 Herritarren aktibismoarako **lankidetzainarria** sortzea.

5 **Funtsezko eragileekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea,** hala nola Bizkaiko Aldundiarekin, gizarte-politikak garatzeko edo bizimodu independenterako beharrezkoak diren produktuak eta baliabideak diseinatzeko.

Bizindek Fekoorren egoitzan (**Blas de Otero kalea, 63-behea, Bilbo**) izango du zentro operatiboa. Informazio gehiago jaso, parte hartu edo lagundu nahi izanez gero, idatzi **bizinde@fekoor.com** helbidera edo deitu telefono zenbaki honetara:


94 405 36 66

IRISGARRITASUN- ARAZOAK DESGAITASUN BALORATZEKO ZENTROAN

Fekoorrek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dio desgaitasuna baloratzeko instalazioetan dauden irisgarritasun-arazoak konpontzeko, Bilboko Lersundi kaleko 9. zenbakian. Medicos Bizkaiak kudeatzen ditu lokal horiek, eta araudia betetzen ez duten bi igogailu dituzte; izan ere, barruan ez dira sartzen aulki ertain-handiak, ezta scooter motakoak ere. Horregatik, mugikortasun urriko pertsona bat leku horretara joaten den bakoitzean, igogailuetan sartzen den aulki txikiago batera lekualdatu behar da.

Fekoor Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da irtenbide bat eman dezaten, baina erantzuna ez da batere ona izan, “seinaleak eta aldez aurretiko informazioa hobetzen” saiaturko direla, “eragozpenak gutxitzeko” eta “etorkizunean zerbitzu hobea eskaini ahal izateko baliabide eta espazio gehiago izaten saiaturko direla” bakarrik adierazi baitute.

Gure Federazioak uste du ez dela onargarria zerbitzu publiko bat irisgarritasunik ez duen leku batean eskaintzea, are gehiago zerbitzu horretan desgaitasuna baloratzen denean. Horregatik, foru-erakundeari eskatzen diogu lehenbailehen har ditzala irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeko behar diren neurriak.



IRISGARRITASUNIK EZ NANA EGITEKO GETXOKO BULEGOAN

Fekoorreko aholkulari juridikoak, Guillermo Trekuk, kexa bat bidali dio Bilboko Polizia Burutzako idazkari nagusiari NANA egiteko Getxoko bulegoaren irisgarritasun-falta lehenbailehen konpontzeko eskatuz. Bulego horietarako sarrerak plataforma jasotzaile zehiarra du, eta bi urte daramatza apurtuta; beraz, mugikortasun urria duten pertsonak ezin dira sartu, eta irtenbide moduan Bilbora joateko esaten zaie. Horrek denbora galtzea eta izapide gehiago egitea dakarkie mugikortasun urria duten pertsonari.

Fekoorrek proposatu nahi die, kabinadun plataforma bertikala jartzeko, edo bulegoa beste lokal irisgarri batean jartzeko. Irtenbide bat hartu bitartean, gure Federazioa Getxoko Udalarekin bitartekari lanak egiteko prest agertu da, aldi baterako udal-egoitza egokiren bat utz dezan.

| Bizkaia |

BIZKAIKO 20 PROPOSAMEN TURISTIKO IRISGARRIEN GIDALIBURUA

Fekoorrek Bizkaiko lurraldeko 20 proposamen turistikoko irisgarri biltzen dituen gidaliburua argitaratu du, mugikortasun urriko bertako eta kanpoko pertsonentzat.

“Bizkaia ezagutzen – Conociendo Bizkaia” izeneko gidaliburua 2020ko azken hiruhilekoan egin da. Alde batetik, gure erakundeak Bizkaian zehar egin dituen eguneko jardueretan bildutako esperientzia jasotzen du, eta bestetik, oraindik probatu ez arren turismo-eta kultura-interesa duten baliabideak aztertzen ditu.

Liburuxka euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, eta informazioa 2020an aztertu diren aisialdiko ekipamendu bakoitzaren banakako fitxetan egituratuta dago, Bizkaiko eskualdeen arabera banatuta.

Gidaliburua turismo-informazioko hainbat bulegotan banatzen da, eta honako esparru itxiak, inguru naturalak edo pasealeku irisgarriak jasotzen ditu: Guggenheim museoak, Athleticeen museoa, Itsas Museoa, Meatza-

ritza Museoa, Enkarterrietako Museoa, Rolls Royce autoen museoa, Boina-La Encartada Museoa, Bakearen Museoa, Txakolinaren Museoa eta Arrantzalearen Museoa.

Horrez gain, honako hauek ere agertzen dira: El Pobal burdinola, El Karpin parkea, Pozalaguako leizea, Armañon eta Ordunte Mendiko Interpretazio Zentroa, Urdaibai Bird Center, Alluitz-Natura Baserri Eskola, Toki Alai-Urkiola Interpretazio Zentroa, Etxe Handien pasealekua eta Burdin Mendien eta Itsaslurereko bide berdeak.

QR kode honetan turismo-liburuxkara sar zaitezke:

Bizkaia ezagutzen

— AISIALDIA ETA IRISGARRITASUN FISIKOA 2020 —



LAGUNTZA PERTSONALA ALDUNDIAREN 2021-2023 PLANEAN

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila gure lurralde historikoko Desgaitasuna duten Pertsonen Parte-hartzerako eta Bizi Kalitaterako 2021-23 Plana prestatzen ari da. Plan horretan, Fekoorek ekarpenak egin ditu, gure kolektiboaren bizimodu independentea bermatuko duten zerbitzu eta prestazioen eskaintza garatzeko.

Beste ekimen batzuen artean, ingurune hurbilenean laguntza-unitateak sortzea proposatu dugu, bai eta egoitza-zerbitzuak ez diren beste laguntza-aukera batzuk sortzea ere, larrialdi-egoerentarako edo atsedeen-premietarako.

Gainera, lanean jarraituko dugu, honako hauek lortzeko:

Erabiltzaileek behar besteko zuzkidura ekonomikoarekin autokudeatzen duten **laguntza pertsonala**. Horri esker, eguneroko oinarrizko jarduerak garatu ahal izango dituzte, komunitatean erabat parte hartzen lagunduko diete eta bizi-proiektuari ekingo diote.

Familia-
ingurune-
ko zainketen prestazio ekonomikoa arautzen duen Dekretua **hobetzea**.

Mendekotasuna aitortuta izateagatik desgaitasuna duten zaintzailleen diskriminazio-egoerak **ezabatzea**.

Sare publikoko zentro eta zerbitzu guztiek irisgarritasun unibertsaleko baldintzak betetzen dituztela **bermatzea**.

Hirugarren sektoreko erakundeekin batera **lan egitea** arau-ekimenen diseinuan eta hobekuntzan, bai eta covid-19ak eragindakoetan ere.

Senitartekoei etxeetan **laguntza ematea**, inguru hurbilean.

Etxean laguntza teknikoak eta laguntza gehiago **eskaintzea**, autozaintzako eta etxeko zereginetarako eta laguntza pertsonalerako.

Proposamen gehienak planean jaso dira, eta, beraz, modu aktiboan parte hartuko dugu haien garapena bermatzeko eraturako mahaian.

IRISGARRITASUNA DONOSTIAKO UDALEAN

elkartuk idazki bat bidali zion Donostiako alkateari, apirilaren 26an Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretuan Mugikortasunaren Arloko Kontseilua egin zenean gertatu ziren gertaera larriak jakinarazteko, bilera horretan, azkenean, erakunde horrek ezin izan baitzuen parte hartu.



Deialdia jaso ondoren, erakundearen ordezkaria, desgaitasuna duen pertsona eta gurgil-aulkiaren erabiltzailea, bertara joan zen bilera parte hartzeko. Mugikortasun urria duten pertsonak Osoko Bilkuren Aretora plataforma jasotzaile bat erabiliz sartu behar dutenez, plataforma erabili nahi izan zuen lan horiek egin ohi dituzten langileen laguntzarekin.

Hala ere, matxuratuta zegoenez, ez zegoen martxan, eta bilera joan behar zuen pertsonak udaletxetik alde egin behar izan zuen, ordezkari lanik egin ezinda.

elkartuk oso larritzat jotzen du sortutako egoera, oinarriko eskubideak urratzen baititu, bai desgaitasuna duen pertsonarena (bilera-rako deialdia egin zitzaion arren ezin izan zuelako bilera egingo zen lekura sartu), bai erakundearena berarena, desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko eta haiei ahotsa jartzea baita erakundearen eginkizunetako bat, baita mugikortasun-politikak bezalako eremu garrantzitsu batean ere.

Hori dela eta, Federazioak Donostiako Udalari eskatu zion beharrezko erabakiak eta

neurriak har zitzala Osoko Bilkuren Aretorako sarbide segurua, duina, autonomia, inklusiboa eta irisgarria bermatzera bideratutako jarduerak gauzatzeko, hiriko alderdi funtsezkoenak aztertzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko ohiko espazioa baita, pertsona guztien eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatze aldera.

Horrekin batera, Udalari jakinarazi zitzaion, aipatutako erabakiak eta neurriak hartzen ez diren bitartean, **elkartuk** Osoko Bilkuren Aretuan deitzen diren bilera, ekitaldi edo jardunaldietan ez parte hartzeko erabakia hartu duela. Alkateak, erantzunean, barkamena eskatu ondoren, jakinarazi zuen eraikinean jarduketara bat egiteko asmoa dagoela, udaletxeko Osoko Bilkuren Aretuan irisgarritasuna bermatu ahal izateko.

ETXEBIZITZETAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO PARTE- HARTZE PROZESUA

Beste partaidetza-prozesu bat bultzatzeko asmoz, elkartuk prozesu berri bati ekin dio, etxebizitzak diseinatzeko moduari buruzko informazioa eta proposamenak biltzeko, desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizimodu independentea susta dezaten.

Horretarako, galdetegi bat prestatu dugu, desgaitasuna duten pertsonen etxebizitzako gelei eta elementuei buruz duten iritzia eta haien ekarpenak zeintzuk diren jakiteko (eraikinerainoko ibilbidea, ataria, solairu-banagailua, barne-banagailua, korridorea, egongela, sukaldea, jangela, logelak, komuna, balkoia, trastelekua eta garajea), bai ohiko oztopoei dagokienez, bai beharrezkoak liratekeen hobekuntzei edo berrikuntzei dagokienez.

Galdetegiaren bidez emandako informazioa jaso eta sistematizatu ondoren, online tailer bat antolatuko dugu, etxebizitza batek bete behar dituen ezaugarrien azterketan sakontzeko, bai irisgarritasun-baldintzen arloan, bai laguntza-produktuen eta gailu teknologikoen eskuragarritasunaren arloan, bizimodu independenterako desgaitasuna duten pertsonen eskubidea berma dadin.

LAN-POLTSAK ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

Azken hilabeteetan, Gipuzkoako hainbat udalek beren lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko arauak onartu dituzte. Hori gertatzen da Orio, Andoain, Tolosa, Zumarraga, Olaberria, Arrasate, Azpeitia edo Idiazabalen.

Horietan ez zenez aurreikusten desgaitasuna duten pertsonen aldeko ekintza positiboko neurririk, **elkartuk** alegazioak aurkeztu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo Donostiako eta Irungo udalen lan-poltsen kudeaketan jada jasota dagoen neurri bat sartzeko: hiru kontratu edo izendapenetatik bat desgaitasuna duten pertsonentzako izatea.

Horrelako neurriak hartzeak, zalantzarik gabe, desgaitasuna duten pertsonen lan-ingurune ireki, irisgarri eta inklusibo batean lan egiteko duten eskubidea sustatzen laguntzen du, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako baldintzetan.



ESKULTURA INAUGURATU DUTE SANTA KLARA UHARTEAN

Cristina Iglesias eskultoreak **Hondalea esku-hartze artistikoa egin du Donostiako Santa Klara uharteko Itsasargiaren Etxean. Ekainaren 5ean inauguratu zen, eta 4,3 milioi euroko kostua izan du.**

2018ko azaroan, **elkartu** Donostiako alkateari zuzendu zitzaion, eta salatu zuen proiektu horrek ez zuela beharrezko irisgarritasun-baldintzarik; izan ere, eskultura dagoen lekuak ez du irisgarritasunik, itsasotik sartu behar denez, mugikortasun urriko pertsonak ezin dutelako bertara iritsi. Ondorioz, herritarren zati handi batek ezin izango du proiektuaz gozatu gainerako herritarren berdintasun-baldintzetan. Era berean, lan-mahai bat eratzea eskatu genuen, espazio publiko batean gauzatutako proiektu bat denez (ondorioz, erantzukizun publiko handiena eskatzen du), irisgarritasuna bermatzeko har zitezkeen neurriak aztertzeko.

Errekerimendua gorabehera, pertsona guztientzako diseinuaren printzipioa eta irisgarritasun unibertsalerako eskubidea larriki urratuz gauzatu da proiektua, eta, horren ondorioz, desgaitasuna duten pertsonak ezin dute obraz gozatu, eta, bestalde, herritar gisa ekarpen ekonomikoa egin behar izan diote obra horri.

Egoera horren aurrean, Federazioak Alkatetzara jo zuen berriro apirilean, azpiegiturak eta zerbitzuak indarrean dauden arauetan ezarritako irisgarritasun-baldintza teknikoetara egokitzeko eskatuz. Hala, esate baterako, Uharteko motorrek, Donostia Hiriko katamaranak eta gainerako jolas-ontziek, uharteko ontziralekuarekin batera, beharrezko esku-hartzeak egin beharko lituzkete

mugikortasun urriko pertsonak espazioetara sartu ahal izateko eta zerbitzuak gainerako biztanleekiko berdintasun-baldintzetan erabili ahal izateko.

Proiektu horrek agerian utzi du gaur egun oraindik ere maizegi mespretxatzen direla irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua. Legeariak eskubide hori behin eta berriz aitortu arren, urratu egiten baitute gizarte inklusiboaren esparruan pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzeko pentsatuta dauden arauak betetzeko eta betearazteko erantzukizuna beren gain hartu beharko luketenean.





HACIA UNA CULTURA INCLUSIVA
Museos para todas y todos

KULTURA INKLUSIBOAREN BIDEAN
Guztientzako museoak

PERTSONA GUZTIENTZAKO MUSEOAK SUSTATZEKO GIDALIBURUA

elkartuk eta K6 Gestión Cultural enpresak “Kultura inklusiboren bidean. Guztientzako museoak” gidaliburua egin dute, museoen irigarritasun unibertsalaren baldintzak bultzatzeko, kulturaren esparruan aukeraberdintasuna berma dadin.

Gidaliburu honek indartu egiten du kultura eskubidetzat hartzeko ikuspegia, eta kultura-eragileei zuzendutako hausnarketarako eta ekintzarako tresna izan nahi du, kultura-jardunbide irigarriagoak eta inklusiboagoak sortzen laguntzeko.

Gidaliburuak museoei ere aplikatu dakizkiekeen oinarritzko kontzeptu batzuk gogorarazten ditu (kultura inklusiboa, irigarritasun unibertsala, pertsona guztientzako diseinua, irigarritasun-katea, irigarritasun-piktogramak, etab.), eta epe luzerako ibilbide-orri bat sortzea gomendatzen du, Museoko oztopo fisiko, sensorial eta kognitiboak ezabatzeko Irigarritasun Plan batean zehaztuko dena. Era berean, desgaitasun mota desberdinetarako irigarritasunaren arloan hartu beharreko neurriak buruzko gomendio batzuk jasotzen ditu.

Gida eskuragarri dago eta **Elkarturen** webgunean deskarga daiteke.

GIZARTE POLITIKEN ESPAINIAKO SAREAREN BILTZARREAN PARTE HARTZEA

elkartuk aktiboki parte hartu zuen martxoaren 15, 16 eta 17an modu birtualean eta aurrez aurre Bilbon egin zen Gizarte Politikien Espainiako Sarearen VIII. Biltzarrean.

Parte-hartzea “Desgaitasuna, kapazitismoa, gizarte-politikak” paneleko hitzaldiaren bidez gauzatu zen. Hitzaldiak egungo gizarte-politiken azterketan sakontzea proposatzen zuen, ikuspegi antikapazitista oinarritzat hartuta, hau da, ebidentziak bilatu ziren honako hau frogatzeko: gizarte-ongizateko sistemarik garatuenean (osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, etab.) zaildu egiten dutela, nahi gabe, desgaitasuna duten pertsonen gizartratzea. Horrela, planteamendu kapazitista gaingaitzen duten politika publikoen diseinuan aurrera egin nahi zen.

Federazioak “Desgaitasun fisikoaren esparruan bizimodu independentea bermatzeko garatu beharreko politika inklusiboak eta esku-hartze soziala diseinatzeko gidaliburua” aurkeztu zuen. Gidaliburuak jardunbide egokiak eman eta berrikuntza-tresna izan nahi du, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako oinarritzko eskubideak benetan gauzatzen laguntzeko, bai desgaitasunaren arloko politika publikoak eginez, bai esku-hartze sozialak diseinatu eta gauzatzuz. Gainera, gizarte-eraldaketa lortu nahi du, gizarte guztiz inklusiboa lortzeko.

LAGUNTZA-PRODUKTUAK EROSTEKO LAGUNTZAK

elkartuk Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuari jakinarazi dio ez dagoela ados abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretua aplikatzeko moduarekin. Horren bidez, desgaitasuna duten edo mendekotasuna duten pertsonen Etxean Programako banakako laguntzak ematea arautzen da, erabiltzailearen ekarpenik behar ez duten produktueterako.

Zehazki, motordun gurpil-aulkiak erosteko laguntzen gehieneko zenbatekoa Gizarte Politiketako Departamentuak ezarri du nahieran, 87/2008 Foru Dekretuan adierazitakoaren aurka, erabiltzaileak ekarpenik ez egitea ezartzen baitu. Gainera, sarritan, laguntza-produktuaren benetako kostua baino nabarmen txikiagoa da, eta, ondorioz, desgaitasuna duen pertsonak kostuaren zati handi bat ordaindu behar du.

Errealitate hori, Etxean Programako banakako laguntzak ematea arautzen duen arauaren ez-betetze larria izanik, argi eta garbi kaltegarria da desgaitasuna duten eta mugikortasun urria duten pertsonentzat, motordun gurpil-aulki

behar baitute autonomia bermatzeko eta komunitatean parte hartzeko; izan ere, gastu handi bati aurre egin behar izaten diote, eta horrek haien egoera ekonomikoan eragiten du.

Horrela, bada, aipatutako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera erabiltzaileen ekarpenari lotuta ez dauden laguntza-produktuak erosteko ematen diren laguntzen bidez, desgaitasuna duen pertsonak aurre egin behar dion benetako gastu osoa ordaintzeko eskatu da.

